



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

ANIZTASUNAREN TRATAERARAKO PLANA

CEP LAS VIÑAS LHI



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

AURKIBIDEA:

0 - Sarrera.

1 - Hezkuntza - premia bereziko plana.

2 - Hezkuntza - indartzeko plana.

3 - Etorkinentzarako harrera plana.



0 - SARRERA

Aniztasunaren trataerako neurriek xede hauek dituzte: ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzutea eta ikasleek curriculumean jasotako oinarrizko gaitasunen gutxieneko mailak eskuratzea. Neurri horiek bide bat ireki behar dute, adierazitako helburuak eta xedeko titulazioak lor ditzaten ikasleek.

Aniztasunaren trataerarako neurriek erantzun behar diete ikasleen hezkuntza-premiei, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten. Eta egoera indibidual edo kolektibo txarrean dauden ikasleen eskolatzearekiko ekintza konpentsatzaielak bultzatuz, aniztasuna tratatzeko neurriak arautuz antolakuntzakoak eta curriculumekoak ikasleen ezaugarrietara molda eta antola ditzagun.

Besteak beste, neurri hauek arautzen ditugu: ikasle-talde arruntean laguntza ematea, talde-banaketak, indantze-neurriak, curriculumaren egokitzapenak, hezkuntza- laguntza espezifikoa behar duten ikasleen tratamendu banakatua egiteko programak, eta unitate bakoitzeko irakasleen ratioak handitzea.

Curriculumeko helburuak lortzea errazteko, berariazko prozedurak ezarriko dira, baldin eta beharrezkoa ikusten bada jarduera-plana berezi bat egitea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen premiei erantzuteko. Plan horrek curriculo-egokitzapeak egin ditzake, curriculumaren edukietatik eta ebaluazio-irizpideetatik aldenduz. Ikaslearekiko jarduera-planean adierazitako curriculum-egokitzapenen helburua hauxe da: oinarrizko gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ikasle horiengan. Curriculum-egokitzapen horietan finkatutako ebaluazio-irizpideak izando dira ikasleen ebaluazioa eta promozioa erabakitzeko erreferentziak.

Ahalmen intelektual handiko ikasleen eskolatzeari malgutzeko aukera izango da, irakaskuntza haien ikasketa-erritmoraren egokitzapenarekin; hala, aukera izango da ikasle horiek garaia baino lehenago sartzeko hezkuntza-etapa batean edo etaparen baten iraupena laburtzeko, baldin eta beharrezkotzat jotzen bada ikasleen oreka pertsonala eta sozializazioa garatzeko. Halako neurriak hartzeko, jarduera-plan bat egin beharko da, normalizazioa eta inklusioa



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

erreferentziazko printzipiotzat hartuta, ikaslearen premiei osoro erantzuteko.

Horretaz gain, esku-hartze hezitzailetik aintzat hartu behar dugu ikasleen ezaugarrien aniztasunaren printzipioa, hori baita ikasle guztien garapena bideratzeko eta ikasle bakoitzaren premiei egokitutako arreta emateko bidea aniztasunaren trataerarako neurri ezberdinak erabiliz.

Ikasleen hezkuntza-premia espezifikoak goiz hautatzea komeni da, neurriak (antolakuntzako eta curriculumakoak) lehenbailehen hartzeko, beren ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko eta hezkuntza-etapako helburuak lortzeko.



1 - HEZKUNTZA - PREMIA BEREZIKO PLANA

1.1. Sarrera

1.2. Norentzako lana?

1.3. Ikasleen hezkuntza-premiak

1.4. Helburu orokorrak

1.5. Metodologia

1.6. Igarotze eta ebaluazio irizpideak

1.7. Beste erakunde batzuekiko harremanak: berritzegune, tutoreak, familiak, pediatrak, familiako medikuak, buruko osasuna, gizarteko ongizatea ... eta hezkuntza berezi artekoak

1.8. Hezkuntza bereziko taldearen antolaketa eta lana

1.9. Aparteko gaitasunen ikasleentzako heziketa-premia bereziko erantzuna

1.1. SARRERA

Eskola inklusiboaren helburua da hezkuntza-komunitate eroso, laguntzailea eta sustagarria sortzea, eta pertsona guztiak seguru senti daitezela, aintzat hartzen dituztela suma dezatela, eta hezkuntza-premien arabera behar duten arreta aurki dezatela komunitate horretan.

Homogeneotasunaren irizpidea ez da jada hartzen eskolan emaitza onak izateko elementutzat, eta komunitate-ingurune heterogeneoen alde egiten da, komunitate horiek hartzen dira egokitzat ikasleek beste ikasleekin bizitzen ikas dezaten, eta, horrez gain, argudiatzen, kritikatzeko, malgutasunez jokatzeko, informazioa bilatzeko, aukeratzen eta prozesatzeko, taldean lan egiten, erabakiak hartzen, gatazkak konpontzen, solidarioa izaten ... ere ikas dezaten. Azken finean, testuinguru egokia da



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

curriculumeko arloak ikasten eta bizi- proiektuan ardura hartzen lagunduko dioten zenbait gaitasun garatu eta gauzatu ditzan ikasleak.

Ikaslearen testuinguru normalizatutik kanpoko lan espezializatura mugatuta zegoen lehen hezkuntza-laguntzaren ikuspegia, ikuspegi murriztailea zen beraz, eta, ikuspegi horretatik, beste ikuspuntu batera pasatu gara. Oraingo ikuspuntuaren arabera, errefortzutzat hartzen dira eskolak ikasleen aniztasunari erantzuteko duen gaitasuna handitzen duten jarduera guztiak. Labur esanda, jarduera horiek batez ere prebentiboak izaten dira, eta haien helburua izaten da denbora eta toki normalizatueta haien berdinak direnekin elkarrekintza izan dezatela ikasleek.

Ikasleek elkarren artean, irakasleekin, familiekin, lagunekin... dituzten elkarrekintzen arabera da batez ere ikaskuntza, bai eta elkarrekintzak gertatzen diren testuinguruek izan dezaketen jarraipenaren arabera ere.

Ikaskuntzan eragina du ikasgelan, etxean, kalean eta komunikabideetan gertatzen denak, eta, hortaz, eskola denez belaunaldi berrien hezkuntzaren ardura duen erakundea, garrantzitsua da mekanismoak eta estrategiak abian jar ditzala, testuinguruek jarraipena izan dezaten eta testuinguru batetik bestera koherentzia egon dadin. Zeregin horretan, funtsezkoa da ikasleekin harremanetan dauden pertsonen laguntza jasotzea irakasleek, batez ere, gizarte-egoera txarretan bizi badira ikasleak edo eskolako kulturatik urrun geratzen diren kultura-errealitateetako ikasleak badira.

Hezkuntza-jardunean aurrera egitea, jende guztia barne hartuko duen eskola-esparrua lortzeko. Ikuspegi horretatik, gela arruntaren jardunean eragina duten alderdi guztiak garatzea, erantzun egokia emateko hezkuntza-premia bereziei, lortzeko lehentasun helburua da.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak. 2.artikuluak, honela definitzen du hezkuntza-premia berezien kontzeptua:

"ondorengo egoerengatik haien eskolatzearen aldi batean, edo eskolatze osoan, hezkuntza-laguntza eta arreta espezifikoak behar dituzten ikasleena: elbarritasun fisikoak, psikikoak edo sentimenezkoak pairatzea, portaeraren nahaste larriak agertzea, gizarte eta kultur mailako egoera ahuletan egotea eta goi mailako gaitasun intelektualei lotutako baldintza pertsonalengatik arreta espezifikoa behar duten ikasle horiek".



1.2. NORENTZAKO LANA?

Ikasle guztiak elbarritasuneko txostenekiko ikasle integratuak dira, edo, integratuak izan barik, ikasketa - arazo larriekin.

Laguntza - gelara joateko erabakia, saio - zenbakia, baita laguntzaren era ere, Berritzeguneko hezkuntza-premia bereziko aholkularia, tutoreak, familia, laguntza - irakasle eta aholkularien artean hartzen dira ikasturtearen hasieran.

Ekimena tutoreetatik irten behar da, haien ikasleak ikusita, laguntza eskatuz.

Azkenik, hezkuntza-premia bereziko aholkulariak era eta zein ikasle hartzeko erabakia hartzen du:

- Gela arruntaren barruan edo kanpoan.
- Zenbat saio eta iraupena.
- Taldeka edo banakako laguntza.

1.3. IKASLEEN HEZKUNTZA-PREMIAK

Hezkuntza - premia bereziek duten zerikusia honako hauexekin:

- Mintzamen eta idazmena.
- Ahozko eta idatziko ulermena.
- Irakurketa - idazketak.
- Kalkulu eta logika matematika.



- Ohitura eta trebetasunak:
 - Mugimenduzko kontrola
 - Motrizitate fina
 - Motrizitate orokorra
- Heldutasun atzerapena:
 - Orientazio espazio - temporala
 - Lateralitatea
- Arreta zentrajea eta behaketa.
- Inhibizio eta parte - hartze eza.
- Absentismoa.
- Autonomia pertsonalaren gabezia.
- Portaera arazoak.

1.4. HELBURU OROKORRAK

- Oinarrizko curriculo - arloetarako (Lengoaia eta Matematika) ikasteko estrategiak prestatu eta orientatu.
- Curriculumaren norbanako egokitzapenaren elaborazioan tutoreei laguntza eman.
- Ikasleekin aurrez aurre lan egin, bai gela arruntean, bai laguntza - gelan.
- Integrazio aurreko giro ona sortarazi.
- Motibazio galtzea saihesteko eta aurrerapen egokia izateko tutoreei aholkuak eman.



1.5. METODOLOGIA

- Ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatu oinarrizko curriculumetik abiatuz.
- Ikasleen erantzunen aurrean baiezko errefortzua erabili.
- Erantzunak baiezkoan baloratu, hurbiltzeak badira ere, ikasleen autoestima hobetuz.
- Saio aktiboak, aldakorrak eta jostakorrak izaten saiatu.
- Ikasle guztien lankidetzeta eta partaidetasuna bizkortu.
- Irakasle eta gelaren kontrako gaitzespena ez agertzea eta ikasleak lanean ondo sentitzea sortu.

1.6. IGAROTZE ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ikastetxearen ikasketa proiektuan (IIP) agertzen den arabera, aniztasunaren trataerari buruzko atalean, hasierako ebaluaketa ikaslearen gaitasuna ezagutzeko da, eta jarraipen ebaluaketa CNEetan agertzen diren helburuen lorpena xehaztatzeko da.

Ikasturtean zehar, hiruhilero, helburuen lorpena ebaluatu egingo da.

Ikasturte amaieran, Berritzegunera Ebaluaketa eta Jarraipenaren Orria bidaliko da. Hantxe, hasitako helburuak laguntzarekin eta laguntzarik gabeko garapenekoak eta lortutakoak agertuko dira. Orri hau hurrengo ikasturteko lana planifikatzeko baliogarria izango da.

Era berean, hiruhilero, txostenak familiei emango dizkiegu. Horiek, tutore, laguntzako irakasle eta irakasle espezialisten artean egingo dira. Horretarako, aldiro - aldiro, elkartuko dira.

Ikasturte amaieran, edo beharra ikusi bezain laster, familiekin seme - alaben aurrerapenak, zein zailtasunak komentatuko dira.



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

Ikasle guztien igarotzea ikastetxearen irizpide orokorra da, salbuespenak salbu. Horrelako kasuetan, familia eta Berritzeguneko irizpideak kontuan hartuko dira.

1.7. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK: BERRITZEGUNE, TUTOREAK, FAMILIAK, PEDIATRAK, FAMILIAKO MEDIKUAK, BURUKO OSASUNA, GIZARTEKO ONGIZATEA ETA HEZKUNTZA BEREZI ARTEKOAK

Berritzegune: Aldiro, hantxe bertan, bilerak izango dira.

Logopeda, ostiralero, 13etik 15ak arte, Berritzegunean bilduko da.

Hezkuntza-premia beeziko aholkularia, hilabetero, bitan, asteazkenean, eskolara etorriko da eskatutako ikasleei aztertzeraz eta aholkulariarekin informazioa trukatzera.

Tutoreak: Hilabetero behin, eta, noizbehinka, beharra sortzen denean.

Familiak: Ostegunero, 12:30etatik 13era arte. Horretaz gain, hiruhilero, ikaslearen aurrerapena komentatzeko familiarekin hitz egingo da.

Hainbat profesional: Laguntzaileak, Portugaleteko Modulua (Armando, Arantza eta Marina), Gizarte - Ongizatea (gizarte - laguntzaileak, familia - hezitzaileak, kale - hezitzaileak), C.R.I., Berritzeguneko fisioterapeuta eta terapeuta okupazionala, Kabinete desberdinetako adituak...

Heziketa Bereziaren Taldea: Hilabetero bilduko gara eta premia agertzen denean, baita ikasturte hasieran eta amaieran ere.

1.8. HEZKUNTZA BEREZIKO TALDEAREN ANTOLAKETA ETA LANA

Ikasleen banaketa, hala ordu - kopurua, nola laguntza emateko era (gela arrunta / laguntza - gela) Berritzeguneko hezkuntza-premia bereziko aholkulariaren laguntzaz egingo dira ikasleen txostenak, izaerak, gaitasunak, adinak eta abar kontuan hartuz.



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

Ikasleek dauzkaten hezkuntza - premia bereziak bakoitzaren curriculuma norbanakoari egokitzean daude zehaztuta, baita lan - programak ere. Dagokion irakasleak ere kopia bat dauka.

Gelan, Matematika eta Lengoaia lantzeaz gain, esku - trebetasunak, espazio - temporal orientazioa, lateralitatea, trebetasun sozialak, zentrajeari eta abar landuko dira.

Ikasle guztiak Lengoaia edota Matematikako sasoietan hartuak dira. Ez bada posible era honetan, edozeinetan hartuko dira.

Haien ikaskideekin partaideak izan daiztekeen orduak errespetatuko dira: atsedendialdiak, Gorputz - Hezkuntza, Musika, Plastika.

Irakasle Aholkularia

1 - Eginkizunak:

- Tutoreari arazo zehatzak aurkitzen laguntzea, eta konpontzeko biderik onenak proposatzea.
- Irakasleei aholkuak ematea, eta tutoreari banakako curriculum-egokitzapenak gauzatzen laguntzea.
- Gelan parte hartzea, tutorearekin batera eta biak koordinatuta, talde-lana eginez, edo, behar den unean, beste irakasle bat balitz bezala arituz, talde malguen egitura baten barruan.
- Ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea, eta tutoreari etengabeko ebaluazioan laguntzea, bai ikaslea bai horren ingurua baloratzuz.
- Beharizan bereziak dituzten ikasleekin lan egitea, horiek banan-banan hartuta, ohiko inguruetan edo inguru berezietan.
- Berrikuntza eta prestakuntzako programak bultzatu eta koordinatzea, tutoreen ekintzari, ikasle desberdinak tratatzeko moduari eta hezkuntza-beharizan bereziei buruzkoak.



2 - Zereginak:

- Gela-taldearen funtzionamenduan eragiten duten aldagarriak, horien zailtasunak eta hezkuntza-premiak irakaslearekin batera identifikatu eta aztertuko ditu.
- Irakasle-taldearekin batera gelako metodologia-egokitzapen eta -antolaketa zehaztuko du eta, behar izanez gero, behar duten ikasleei banakako arreta emango die.
- Aniztasunari erantzuteko planifikazioan eta antolaketan zuzendaritza-taldearekin lankidetzan arituko da.
- Esku-hartzeak garatzeko zein baliabide jarri behar den baloratu eta planifikatuko du zuzendaritza-taldearekin batera.
- HPB dituzten ikasleen curriculuma norbanakoari egokitzeko prestatze-, garapen- eta jarraipen lanetan lankidetzan jardungo du zuzendaritza-taldearekin eta horretan inplikaturako gainerako profesionalekin.
- Ohiko gelaren barruko ikasleen aniztasunari erantzuteko irakasleen gaitasunak hobetuko ditu. Horretarako, ikastetxean ikasteko eta parte hartzeko trabak gainditzeko ekintzak sustatuko dituzte.
- Ikasleen banakako ebaluazio interaktibo eta kontestualizatua egiten lagunduko die irakasle-tutoreei. Ebaluazio hori ikasleen ahalmenetan eta beharrianetan oinarrituko da, prozesua eta programa berbideratzeko.
- Ikasteko eta irakasteko prozesuen elementu erraztaileak identifikatuko ditu tutoreekin batera: curriculum egokitzapenak, gela dinamika, lan-proposamen bereiztuak, lan autonomia...
- Zuzendaritza-taldearen eta irakasleen ekintzak Berritzegunearekin koordinatuko ditu, batez ere erreferentzia-aholkulariarekin eta dagokion HPB aholkularitzarekin.



- Ohiko ikasgela barruan ikasleei zuzenenan arreta emango die eta salbuespen gisa, gelatik kanpo.
- Aniztasuna artatzeko, parte hartze orokorreko programak bultzatu eta dinamizatuko ditu ikastetxean, etapan edo zikloan.
- Aniztasuna eta HPB lantzeko heziketa-programei ekingo die eta horietan parte hartu eta lagunduko du, zuzendaritza-taldearekin bat etorritz.
- Ohiko jarduera aztertzeko, lankidetzaz-esparru bat sustatuko du irakasle-taldean. Horrela, sortzen diren hezkuntza-premietara moldatuko da ikasgelen funtzionamendua.

Pedagogia terapeutikoko irakaslearen eginkizunak

- Beharrez bereziak dituzten ikasleei laguntzea, banan-banan edo talde txikietan, ohiko ikasgelan edo laguntzakoan, curriculum egokituetako edo banako lan-planetakoa lantzeko.
- Tutore, aholkulari eta talde multiprofesionalarekin batera lan egitea, eskatzen zaion bakoitzean, beharrez bereziak dituzten ikasleen curriculum-balorazioa egiteko.
- Beharrez balitz, aholkulari eta tutorearekin batera beharrez bereziak dituzten ikasleen banakako curriculum-egokitzapenak egin eta garatzea, eta horien ikasmaterialak sortzea.
- Beharrez bereziak dituzten ikasleen familien eta tutorearen arteko harremanetan laguntzea.
- Tutore eta aholkulariarekin batera, ikasle desberdinak elkarrekin egoteagatik sortzen diren arazoei erantzuna ematea, beharrez bereziak dituzten ikasleen lehentasuna errespetatuz.



Entzumen eta mintzamen irakaslearen eginkizunak

- Tutore eta aholkulariarekin batera, ikasleen mintzameneko arazoak aurkitzea.
- Talde multiprofesionalarekin lan egitea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen diagnostiko psikopedagogiko berezia egiteko.
- Irakasle, logopeda eta talde multiprofesionalarekin ados jartzea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen ebaluazioa egiteko eta dagokien hezkuntza-plana sortu eta ikuskatzeko.
- Talde multiprofesionalarekin batera, curriculuma egokitzeko irizpedeak erabakitzea.
- Irizpide horien arabera, mintzamina zuzentzeko programa sortu, landu eta martxan jartzea, egoerarik larriena duten ikasleei lehentasuna emanez.

Hezkuntza-laguntzako espezialisteen eginkizunak

- Autonomia pertsonaleko programak diseinatu eta burutzea eta, honekin lotuta, hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslea zaintzea, txukuntzea, garbitzea eta janztea, behar baldin badu, ezarritako orientabideei jarraituz eta arretaz arduratzen diren irakasleek begiratuta (tutorea, aholkularia, irakasle tutoreak, etab.).
- Hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslearen elikadura-ohiturekin zerikusia duten autonomia pertsonaleko programak diseinatu eta burutzea, ezarritako orientabideei jarraituz eta arretaz arduratzen diren irakasleek begiratuta (tutorea, aholkularia, irakasle tutorea, etab.).
- Behar duen ikasleari batetik bestera joan behar duenean laguntzea bere eskolako ekintza garatu ahal izateko.



- Zerbitzua eskatzen duen ikasleari arreta ematen, begiratzen eta zaintzen biziki parte hartzea, atsedendietan; gainontzeko ikasleekin harreman egokia izan dezala lortzen saiatu beharko da.
- Laguntza-eta aholkularitza- profesionalekin (logopeda, fisioterapeuta, IBTren irakasle ibiltaria, TMren aholkularia, etab.) lankidetzan jardutea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek egin behar dituzten jardueretan, eta bertaratzea eskatzen den horietan.
- Bere eskumenaren eremuan, irakasle tutorearekin parte hartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagozkien Norbanako Curriculum Egokitzapena eta norbanakoen programak prestatu eta egiten; halaber, dagozkion lan horiek gauzatzea.
- Bere eskumenekoak diren alderdietan, irakasle tutoreekin, irakasle bereziarekin eta, hala badagokio, TMrekin koordinazioan jardutea, autonomia pertsonaleko programei dagokienez, Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.
- Laguntza-profesional osagarriekin (logopeda, fisioterapeuta, IBTren irakasle ibiltaria, okupazio-terapeuta, etab.) lankidetzan jardutea, zertarako eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei curriculmera sartzeko behar dituzten materialak egokitzen eta erabiltzen laguntzeko eta laguntza tekniko eskaintzeko.
- Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea; honela, errazagoa izango da Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta programazioa eta arretako ikasleek duten eboluzioaren jarraipena egitea, materialak egokitzeari eta laguntza teknikoak eskaintzeari dagokionez.
- Dagozkion ardurak aplikatzea, ezarritako protokoloari jarraituz; dena dela, funtzio hauek ikastetxeko gainontzeko profesionalekin batera garatuko dira.
- Osagarritzko laguntza-zerbitzuekin parte hartu eta lankidetzan jardutea, mugitzeko trebetasunak garatzeko jardueretan.



- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta, manipulazioa, motibazioa eta kontrola zentratzen parte hartu eta lankidetzan jardutea, mugitzeko trebetasunak garatzeko jardueretan eta beren jokaeretan.
- Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea, mugitzeko trebetasunei dagokienez, Norbanako Curriculum Egokitzapenaren ondoriozko banakako programazioaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.
- Lehen aipatutako programei buruzko bilera teknikoetan eta ebaluatze bileretan parte hartzea.
- Bere eskumeneko txosten teknikoak egitea.

1.9. APARTEKO GAITASUNEN IKASLEENTZAKO HEZIKETA-PREMIA BEREZIKO ERANTZUNA

- Aparteko gaitasun intelektualak dituzten ikasleei beren ahalmenak bete-betean, neurriz eta eskola-inguru normalizatu batean garatzen laguntzeko hezkuntza arreta.
- Eman beharreko erantzuna bi bidetatik etor daiteke: curriculumazabaltzea; edo derrigorrezko eskolatze-aldia malgutzeta eta curriculumak banan-banan egokitzea.
- Ikaslearen aparteko etekina arlo jakin batzuetakoa dela ikusten bada ebaluaketa psikopedagogikoan, orduan curriculumazabaltzea eta zabaldu egin beharko dugu. Horixe bera egin beharko dugu, ikaslearen aparteko emaitzak orokorrak eta jarraiak izanagatik ere, afektibitatearen aldetik edo gizartearekiko harremanetan hutsunerik erakusten badu.
- Banan banako curriculum- egokitzapenaren bitartez (nabaria), helburuak eta edukinak aberastu, ebaluaketa-irispideak malgutu eta, ikasleak nola ikasten duen kontuan harturik, zein metodologia zehatz erabiltzea komeni den azaldu beharko dugu.



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

- Ebaluaketa psikopedagogikoan, eskolaratuta dagoen zikloko edo ikasturteko helburuak dagoeneko lortuak dituela agertzen bada, derrigorrezko eskolatze-aldia lehenago hasteko aukera eman, edo garai hori laburtu ere egin daiteke.
- Metodologia aldetik, estrategia modura, antolakera malguak erabil ditzakegu, ikasleak, batzuetan, beste maila batzuetako taldeetan parte hartzeko aukera izan dezan, hau da, curriculum-gaitasunen aldetik adinez dagokionaz besteko mailetan.



2. HEZKUNTZA - INDARTZEKO PLANA

Indargarri horretan irakasleek eurek diseinatutako banakako zein taldetarako hezkuntza neurriak sartuko dira, eta horien xedea ikasleei eskolan izaten dituzten ohiko zailtasunetan laguntzea izango da. Hori da, ikasleei laguntzeko premiak betetzeko ekintza eta estrategiak egokienak.

a) Curriculum-mailako ekintzak:

- Curriculumaren norbanako egokitzapena (ez nabaria): curriculum-alde nabarmena, gutxienez, ziklo batekoa denean.
- Ekintzen antolaketa oinarrizko gaitasunak garatzeko.
- Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta, materiala egokituen prestakuntza.

b) Antolakuntzako ekintzak:

- Klase barruan irakasle bat baino gehiago izatea.
- Klasetik kanpoko noizbehineko egonaldiak.
- Taldearen zatiketa.
- Talde irekiak.



3 - ETORKINENTZARAKO HARRERA - PLANA

1. FAMILIA BERRIARI HARRERA

Harrera on batek segurtasuna, autoestimua eta, askotan, ikasketetan arrakasta izateko oinarri sendoa ere eskaintzen du.

Familiarekin egon egin behar da, eta ikastetxearen funtzioa zein den azaldu behar zaie, haren funtzionamendu, antolaketa eta zerbitzuei buruzko informazioa emanaz.

Era berean, haiek ere bere egoeraren berri ematea espero da: familia zenbat diren, etorreraren arrazoiak, lehengo eta oraingo egoera laborala, ikasleen lehengo eta oraingo eskolatzea, eta abar.

Zentruaren zuzendaria izango da harrera egingo duen pertsona. Matrikulazioa egiteko beharrezkoak diren dokumentuak bidaliko ditu.

2. ADSKRIPZIOA ETA HASIERAKO BALIOESTEA.

2.1. ERREFERENTZIA-TALDEA ADSKRIPZIOA.

Adina eta jasotako irizpide guztiak kontutan izanda behin-behineko erreferentzia talde batean egokituko zaio. **Eskolako zuzendariak eta aholkulariak** erabakiko dute zein taldetan sartuko den.

Irizpideak malguak izango dira, kasuaren arabera moldatu ahal izateko.

Zuzendariak ikasle berriaren etorriaren berri emango dio tutoreari eta honek irakasle espezifikoei esango die.

Era berean, tutoreak, taldeari horren berri emango dio. Gelako harrera prestatu eta garatuko du.



C.E.P. LAS VIÑAS-L.H.I.
Dr. Fleming s/n ☎94 4 61 88 34
48980 Santurtzi-Bizkaia
E-mail: 014413aa@hezkuntza.net

Ikaskideen artean "ikasle enbaxadorea" aukeratuko da, ikasle berriari laguntza emateko.

Zein taldetan sartuko den erabaki ondoren , tutorea, H.I.P.I eta familia bilduko dira .

Bigarren kontaktu jorra daitezkeen gaiak hauek izango dira:

- Tutorea eta hizkuntza indartzeko irakaslea ikasleari eta familiari aurkeztea.
- Hezkuntza-sistemaren familiak izan ditzakeen dudak argitzea.
- Ikastetxearen helburuak,hizkuntza-proiektua eta nortasun-ezaugarriak adieraztea.
- Ikasle etorkinaren eta familia inguruko informazio zehatza jasotzea: jatorria, familiako hizkuntza, ordura arteko eskolatzea, bizilekua, familiako kideak, eskolatzearen egoera eta jarraipena eta abar.
- Gelako martxan esku hartzeko planaren berri ematea, ikasturte batean izen emateko argibideak eskaintzea eta taldean esku hartzeko planaren berri ematea.
- Indartze- programa azaltzea, eta ikaslearen parte-hartzeaz galdetzea.
- Etxeko lan, irteera,eskolaz kanpoko ekintza eta antzeko jardunbidearen berri ematea.

Tutoreak , harrera planaren parte hartzen duten irakasleei baita gela barruan sartzen direnei informazio guztia emango die. Jantokiko arduradunari ere komunikatu behar dio.

Tutorea erreferentziazko pertsona da,eta haren bidez garatuko dira harreman afektiboak. Berak gelaren harrera prestatu eta garatuko du.Komeni da gelan enbaxadore-sistema bat abian jartzea. Ikasle enbaxadorea erreferentzia-taldeko kide bat da, gelako ordezkari izango dena ikasle etorkinaren aurrean. Enbaxadoreak boluntarioren aurrean hautatu behar dira.

Zuzendaritzan badago dossier bat ongi etorriko ekintzekin.

Eskolako lehenengo egunean, tutorea ikaslearen bila joango da zuzendaritzara eta bera izango da umearen gida eskola, bere klasea eta bere ikaskide berrien aurkezlea.



2.2. HASIERAKO BALIOSTEA

Hasierako balioestearen helburua ikaslearen hezkuntza beharrak zehaztea da, horretan oinarrituta, banako interbentzio-plana diseinatzeko.

Erreferentzia-taldeko tutoreak eta hizkuntza indartzeko irakasleak egingo dute hasierako balioestea.

Hasierako balioestea egin ondoren, **hizkuntza indartzeko irakasleak** banako interbentzio-plana egingo du. Banakako plana berrikusi egin behar da.

Hizkuntza Indartzeko irakasleen zereginak honako hauek izango dira:

- Hizkuntza Indartzeko gelako programazioa egin, ikasleen beharretara egokituz.
- Aipatutako ikasleen Banakako Esku-hartze Plana egin tutorearen laguntzaz.
- Hizkuntza Indartzeko irakaskuntza antolatu:
 - Ikasleak ezagutu eta taldekatu.
 - Gela antolatu.
 - Material didaktikoak prestatu, antolatu eta aztertu.
 - Dagokion hezkuntza-indartzea gauzatu.

a) Hizkuntza Indartzeko irakasleak iritsi berria den ikaslearen tutorearekin arituko dira honako zeregin hauetan:

- Iritsi berriak diren ikasleen harrera eta integrazioa erraztu, bere gaitasunak garatzen lagundu eta ikastetxeko ekintzetan parte har dezan bultzatu.
- Ikasleen ikasketa eta aurrerapenen ebaluazioan parte hartu.
- Materialaren eta edukien egokitzapena egin.

b) Eskola-komunitateko partaide denez, Hizkuntza Indartzeko irakasleek gainerako irakasleekin batera honako zeregin hauetan parte hartuko dute:

- Hizkuntzak irakasteko jarduerak planifikatu.
- Hezkuntza-prozesuko kultura arteko ikuspegiaren integrazio-jarduerak diseinatu.